

Euskeraren oztopoak

Euskaldunon Egunkaria, 1992-03-17: 2.

EUSKALDUNON EGUNKARIAri gutxienezko laguntza ukatzeko xuripen bila egiten ari diren ekilibrioak harrigarriak dira. Entzun ditugun azken urte honetan neurri eta kolore guztietakoak. Azkenekoa, Leitzarango autobideari dagokion zerbaitek erakusten duena da. Ez nuen uste haurra nintzela bailarak hainbesteko garrantzia izango zuenik. Bide hori osasunarentzat ona zela, bistarentzat zoragarria eta Peito Garmendia lagunak eskuz aise harrapatzen zituen amuarrainez betea izateak ez zuen gure begietarako hainbesterainokoa egiten; ez euskararen aurkako malefizioa hausteko adineko kemenik izango zuenik, alafede! Diputazioak bide hau egiteko lehen proiektua sortu zenez gero egin eta erakutsi dira maketak, eta bere meritu eta desegokitasunak astindu dira prentsaren argitan eta isilpeko kontziliabuluetan; irabazi eta galdu dira Aldundian hauteskundeak; hain ur garbietan gezur zikin frango jeitsi ere bai, amuarrainak ere hilko ziren honez gero; eta orain, berriz, atxakia, hainbeste behar dugun bakea da. Gure herriko bake falta dena usteltzen ari den honetan. Leitzarango bailaratik proiektatuta dagoen autobidearekin lotu dute. hasieran zerbait ulertzen genuen, ona edo txarra ote zen, naturaren kontra ote, baina batez ere lana egiteko behar zen auzokidetza legez kanpo zegoela! Hau zela pekatu. Bai Madrilen, bai Gasteizen ere. Baina orain gutxi dena aldatu da. Orain EUSKALDUNON EGUNKARIA gaixoari eransten zitzaion izurri bera zuen autobidearen auzolanerako talde hau bedeinkatu egin dute Bilbon, Gasteizen eta Madrilen. Datorrela bakea, noski!! Baina, logika hutsean, euskarazko egunkariaren onerako ere etorriko ahal da!